

opusdei.org

# **On egiteko nahi izatea ez da aski, jakin egin behar da**

Roda Fundazioak, Bilbon, zenbait lurraldetan garapen pertsonal eta sozialaren alde lan egiten du, eta orain gutxi, Jardunaldi bat antolatu du bere solidaritate eginkizunean sakontzeko.

2004 Mar 17

Mons. Arregik, Ibarako (Peru) Apezpikuak, “Kristau baloreak premia gehien dutenen garapen

integralean, Opus Deiren Fundatzailearen pentsamenduaren arabera” gaiari buruz hitz egin zuen. Prelatuak gizaki guztiok duintasun bera daukagula adieraziz hasi zuen bere hitzaldia: denok Jainkoaren seme-alabak gara, beraz, familia bereko senide. Eta horrek besteen ardura izatera eramane behar gaitu, beren behar material eta espiritualetan. “Lagundu nahi izatea ez da nahikoa, zehaztu zuen. Profesionaltasunez lan egin behar da. Zerbitzatzeko gogoarekin batera, ahaleginak, lana eta ekimena behar dira, irtenbideak bilatu. Opus Deiren Fundatzailearen hitzetan: On egiteko, nahi izatea ez da aski, on egiten jakin egin behar da”.

M. Karmen Garmendiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburu ohiak, Guggenheim museoan ospatutako ekitaldiaren esku hartzeak ireki zituen. “Solidaritatearen kultura” izan zen bere hitzaldiaren gaia. Bere

iritziz, balore nabarmen honek  
besteei on egin ez ezik, praktikatzen  
duenari ere on egiten dio. “Gizarte  
osoak parte hartu behar du nolabait  
gaur egungo desoreka zaurgarrien  
aurrean; batzuk solidaritate  
pragmatiko edo eraginkor batez  
mintzatzen dira gaur” esan zuen.

Macarena Cotelok, Madrileko  
Fundación Promoción Social de la  
Culturako proiektuen arduradunak,  
Fundazioaren helburuak azaldu  
ondoren, San Josemariak  
sustatzaileengan izan zuen eragina  
eta fundazioaren garapenera  
bultzatzen duen kristau filosofiaz  
hitz egin zuen. Aldi berean,  
Fundazioak Afrikan eta Sortalde  
Hurbilean, kultura, erlijio eta arraza  
desberdinetako jendeen artean  
aurrera daramatzan zenbait proiektu  
aurkeztu zuen.

Bestalde, Sofia Collantes kazetariak  
dokumental bat aurkeztu zuen Opus

Deiko kideek, beste pertsona batzuekin batera, munduko lurralde desberdinetan –Kongo, Estatu Batuak, Nigeria, Uruguai, Kenya– sustatutako garapen sozialeko ekimenei buruz.

Jarraian BBVAko Komunikazio eta Irudiko Zuzendari Orokorrak enpresen erantzukizun sozialaz hitz egin zuen. Juan Soutok, Manos Unidaseko Azterlanak eta Dokumentazio Departamentuaren Koordinatzaile Teknikoak, GKE honen kristau identitatea azaldu zuen.